

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Bezperaren bezpera Aingeru Epaltza

PAMIELA

118 orrialde

13 euro

Nor den etxegile, nor desegile

Nafarroa ei da gakoa, gatazka zorionekoaren konponbidean. Hala egozten diote askok, bai Euskal Herria eraiki behar dela uste dutenek, bai jo eta ke deserai-kuntzan ari direnek. Aingeru Epaltza, ordea, ez dator horrekin bat. Aspaldi ez du garbi bereizten nor diren etxegileak, nor desegileak. Are gehiago, Nafarroa eta Euskadi gero eta galaxia desberdinagoetan ikusten ditu. Aspaldi uste du espainol gelditzeko baldintzarekin baizik ez zezakeela Nafarroak onartuko Mendebaldearekiko ezkontza. Eta hala ere, lanak. Eta ondorio gisa zera aldarrikatu du *Bezperaren bezpera* izeneko

gogoeta bilduman: ez dezala inork pentsa tesi abertzale historikoek gaur egun irabazteko aukera bakar bat ere dutenik Nafarroan. ■



Irish Museum of Modern Art. Obra nabarmenenak

Batzen artean

KUTXA FUNDAZIOA

128 orrialde

Irish Museum-eko bildumaren sorta berezia

Pasa den mendeko berrogeiko hamarkadan abiatu zen Irish Museum Modern Art, hasiera-hasieratik jatorri askotako obrak hartuz: pintura, argazkilaritza, eskultura edota instalazio artistikoak. Gero horri beste batzuk gehitu zizkieten, esate baterako Musgrave Kinley Outsider Art Collection izeneko arte marjinal bilduma; eskulturaz, marrazkiz eta paper gaineko obrez osatutako Weltkunst Foundation-eko bilduma, arte optiko eta zinetiko bildumak, latinoamerikar artisten grabatuak, argazki eta bideoz osatutako lan ugari... 4.500 obretara iritsi arte. Horietatik bereziki hautatutako lagin garrantzitsua ikusi ahal izan zen Kubo-Kutxa Aretoan, eta han agertutako katalogoa da orain Kutxak eskaini duena. ■

Beasaingo gazteen idazlanak

Hemezortzi urte daramatza Beasain Idazlehiaketak martxan. Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ikasten ari direnen artean antolatzen dute eta iaz 12 urte bitarteko herriko ikasleentzako lehiaketa izan zen. Hamabi urtetik gorakoentzat berriz, eskualdekoea. Gainera, 16-18 urte bitarteko ikasleen artean hitz lauzko idazlanen eta olerkien lehiaketa egin zuten. XVIII. *Beasain Idazlehiaketa 2007-2008. Saritutako idazlanak* izeneko liburuan plaza-ratu dira literatur lehiaketara horretara iritsitako ehunka idazlanetatik epaimahaiek aukeratu zituzten 39 idazlan, horiek jaso baitzituzten sariak eta aipamenak. Ezin idazlan horien izenburu guztiak aipatu, ez eta beraien egile prestuen izen-abizen guztiak ere. Baina sormen handiko lanak dira den-denak. ■



XVIII. Beasain Idazlehiaketa 2007-2008

Batzen artean

BEASAINGO UDALA,
KUTXA

246 orrialde

Gosez akabatzen zeuden txerrienak

Hamar urtetik aurrerako irakurleentzat idatzi du Iñaki Zubeldiak *Txerrikumeen abenturak* istorioa. Jabeek jaten ematen ez eta goizero janari bila atera beharrean izaten ziren txerri ama baten eta haren kumeen gorabeherak kontatzen ditu Zubeldiak liburuan. Gosez amorratzen daude txerri horiek eta, jakina, Baltzategi Gipuzkoako herri txikian harrapatzen duten guztia jaten dute: ogia, barazkiak edo ogitartekoak, jaberen bat izan dezaketela batere kontuan izan gabe. Bistan da, azkenerako nazkatuik daukate Baltzategiko herri osoa, txerri horien jabea izan ezik, hura pozik baitago bere txerriek sabela betetzeko aurkitu duten irtenbidearekin. Arazoari konponbideren bat aurkitu behar zaio. Eta hain zuzen herriko umeak izango dira arazoari irtenbidea emateko modua aurkituko dutenak. ■




Txerrikumeen abenturak

Iñaki Zubeldia

IBAIZABAL

94 orrialde

9,95 euro



Rutas para descubrir Euskal Herria con niños

Ibon Martín

TRAVEL BUG

224 orrialde

19 euro

Haurrekin mendian egiteko ibilbideak

Berezitasun hori du Ibon Martínek eskainitako gida honek: haurrekin egiteko espreski aukeratutako bideak direla. Euskal Herria bere osotasunean hartu du kontuan eta ibilbide errazak, arrisku gabeak eta motzak azaldu ditu, 40 denera. Badira haur kotxeekin ere egin daitezkeenak –Senperen, Arabako Errioxan, Arantzazu ibaiaren haranean edo Pitillaseko urmaelean, adibidez– baina gehientsuenak bost urtetik aurrerako umeek patxada ederrean egiteko modukoak dira. Ibilbide bakoitzak zehaztuak ditu zailtasun maila, egiteko behar den denbora, ibilbidearen mapa, haraino nola iritsi, non jan eta lo egin daitekeen eta beste zenbait argibide. ■

Neska-mutikoentzako mendi liburua


Mendian ikaragarri gozatzeaz gainera, neska-mutikoek naturaz asko ikas dezakete. Ibon Martínek *Rutas para descubrir Euskal Herria con niños* gidarekin batera sortutako *Cuaderno de Campo para niños* ohar liburua lagungarri izan dezakete horretan. Idazkera xehea du eta marrazki asko, haurrei arbolak, landareak eta animaliak bereizten ikasteko; baita hainbat eskulan eta ariketa ere, txikienean egiteko. Esate baterako, sorginaren erratza, mendi gailurreko postontzian utzi ahal izateko marrazkia edo idazlana... ■

Cuaderno

Ibon Martín

TRAVEL BUG

94 orrialde / 9 euro



CASTILLO SUAREZ

«Atzera begirako poemak dira, arrastoei buruzkoak»

Zer zirrarra eragin dizute zure azken poemek?

Souvenir nire laugarren poema-liburua da. Lehendabizikoa 2000. urtean argitaratu zen, hau 2008an. Denbora ez da alferrik pasatzen eta sentsazioa daukat –ez dakit nik esan beharko nukeen baina– egin ditudanen artean onena dela. Besteetan baino gehiago lortu dudala adierazpena eta adieraziaren artean. Beti izan da nire ezaugarrietako bat hizkuntza soila erabiltzea, hizkuntza komunikatiboa. Bada, iruditzen zait *Souvenir*-en espreski ariketa poetikoa egin dudala. Gai aldetik ere aldaketa izan da: tragikotasuna desagertu da, eta horrek behar bada perspektiba zabalagoa eman dit liburua idazteko.

Zergatik aukeratu duzu *Souvenir* titulua?


Saiatu naiz poemei ukitu magiko bat ematen, hitzekin jolas moduko bat eginen. Poemetako gaiak atzera begirakoak dira, arrastoei buruz hitz egin nahi izan dut, harremanek edo tokiek gudan uzten dituzten arrastoez. Horregatik aukeratu dut *Souvenir* izena. *Souvenir*-ak gauza hutsalak dira, baina balio sinboliko handikoak: iraganera garamatzate, edo toki urrunetara; bizitzako esperientziak gauzatu egin dira souvenirretan. Gainera, iruditzen zait souvenirraren ideia neurri batean poesiaren antzeko zerbait dela: azkenean souvenirrei inork ez die erreparatzen, edo inork ez die erreparatu nahi, gauza hutsalak direlako, alferrikako gastua; eta poesiarekin nik uste antzeko zerbait pasatzen dela, alferrikakoa dela esan izan da. *Souvenir* ideiak badu alderdi bikoitza. Oroitzapenak dira, burutazioak... baina fisikoak ere badira: pertsona bat, leku bat, gertakari bat gogora ekartzen digute.



egileari galdezka

Castillo Suarezen kutxa moduko poema-liburua

Giza harremanez zorrotz aritu izan da beti Castillo Suarez (Altsasu, 1976) bere poemetan, bai *Mugarri estaliak* (Susa, 2000) izeneko poema-liburuan, baita *Spam poemak* (Elkar, 2004) eta *Bala hutsak* (Elkar, 2006) lanetan ere. Eta sakontasun berbera erakusten du *Souvenir* liburuko poemetan: “Urkatzeko eskatuko banizue zer erantzungo zenuketekin jakin nahi nuke. Zer egiten duzuen begien koloreekin lanetik bueltan”, dio haietako batean. Eta olerkariaren hitzetan azaltzeko, kutxa moduko bat da *Souvenir*. Lekuz, etxez, lanez edo lantokiz aldatzen garenean bete ohi ditugun kutxak dauzka poetak gogoan; horietan gurekin nahi ditugun gauzak sartzen ditugu; garbi baitugu zer bota edo zer ez dugun gurekin eramanez. Haatik, Castillo Suarezen kutxa ez da toki berrira iritsi eta lehenbizitik ireki-



Souvenir

Castillo Suarez

ELKAR

88 orrialde

12,25 euro

tzen den horietakoa, pasabidean edukitzen dena baizik, ez dakigulako zer egin barruan dauden gauzeekin, gogora oroitzapenak ekartzen dizkigutelako. Eta Pandoraren kutxa bezala, ez dakigu ireki nahiko genukeen ala ez, hor daudenak, gauza txikiak izanagatik, iltzaturik ditugulako barruan. Poema independentez osaturik dago *Souvenir*, baina atmosfera batek lotzen ditu guztiak. ■